

# 3.-SEXU-JAZARPENA ETA SEXUAN OINARRITUTAKO JAZARPENA KIROL-MUNDUAN

TXOSTEN TEKNIKOA, ARGITALPEN ZIENTIFIKOAK BERRIKUSI ETA  
DETEKZIO-GALDETEGI BAT BALIOZKOTU ONDOREN EGINDAKOA

Egileak

Andrea Sáenz-Olmedo, Aitor Iturricastillo, Ruth Cayero, Javier Yanci, Cristina Granados, Juan Aldaz, Uxue Fernandez-Lasa, Nagore Martínez, Oidui Usabiaga

## AURKIBIDEA

<b>1. SARRERA.....</b>	<b>3</b>
<b>2. LITERATURA ZIENTIFIKOAN DAUDEN GALDETEGIAK BERRIKUSTEA .....</b>	<b>6</b>
2.1. <i>METODOA .....</i>	7
<i>Bilaketa-estrategia .....</i>	7
<i>Artikuluak sartzeko eta baztertzeko irizpideak .....</i>	8
<i>Ikasketa hautatuak .....</i>	9
<i>Kalitate metodologikoa .....</i>	11
2.2. <i>EMAITZAK .....</i>	14
<b>3.    KIROLEKO SEXU-JAZARPENARI BURUZKO GALDETEGIA HAUTATZEA .....</b>	<b>16</b>
3.1. <i>ZERGATIK HAUTATU GALDETEGI HAU? .....</i>	17
<b>4.    KIROLEKO SEXU-JAZARPENARI BURUZKO GALDETEGIA .....</b>	<b>18</b>
4.1. <i>AZTERGAIK .....</i>	19
4.2. <i>PARTE-HARTZAILEAK.....</i>	19
4.3. <i>GALDETEGIA ERABILTZEKO PROTOKOLOA .....</i>	19
4.3.1. <i>PROZEDURA.....</i>	19
4.3.2. <i>TRESNA .....</i>	19
4.4. <i>AZTERKETA ESTATISTIKOA.....</i>	20
4.5. <i>EMAITZAK .....</i>	20
<b>5.    TRESNA .....</b>	<b>28</b>
<b>6.    ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK.....</b>	<b>29</b>

# 1. SARRERA

Brackenridge eta Fasting (2005) egileek honela definitu zuten sexu-jazarpena: "gogoz kontra sexuan oinarritutako arreta jasotzea". Ildo beretik, Nazioarteko Batzorde Olinpikoak beste definizio hau baliatu zuen sexu jazarpenari dagokionez: «desiratua ez den edozein sexu-portaera, ahozkoa, hitzik gabekoa zein fisikoa izan» (Mountjoy eta beste batzuk, 2016, p.3).(Mountjoy et al., 2016, p.3). Sexu-abusua, bestalde, honela definitu izan da: abusatzaileak harrapatutako biktimak sexu-ekintzetan parte hartzea, zeinak prestatuak edo derrigortuak diren (Brackenridge & Fasting, 2005). Mountjoy-ek eta beste egile batzuek ere (2016, p. 3) antzeko definizioa eman zuten: "Edozein sexu-jokabide –ukipenik gabea, ukipenekin edo penetrazioarekin izan–, zeinean baimena derrigortuta edo manipulaturik ematen den, ez den ematen, edo ez dago ematerik”.

Sexu-jazarpena beste testuinguru batzuetan oso ikertua izan bada ere (Olweus, 1986; Sullivan et al. 2005; Cerezo, 2009) kirolaren eremuan, berriz, oraindik gutxi aztertu da Estatuan zein nazioartean (Bjørnseth & Szabo, 2018; Martín & Juncà, 2014; Ohlert et al, 2020). Ildo horretan, Espainiako estatuan eta, ondorioz, Euskal Autonomia Erkidegoan, sexu-jazarpenari buruzko sentsibilizazio-jarduera gutxi egin dira. Kirol-esparru horrek jazarpena saihestu edo gainditzen lagundu badezake ere bertan gertatzen diren interakzioei esker (Sáenz et al., 2022), badira justu kontrakoa zehazten duten azterlanak ere. Izan ere, deskribatu izan da kirol-esparruak jazarpen-egoerak areagotzea edo larriagotzea eragin dezakeela (Prat et al., 2020). Hala, zenbait lanetan kirol-testuinguruetan jazarpena nozitu duen jendearen bizipenak jaso dituzte.(Evans, et al., 2016 Fisher, & Dzikus, 2017; Ríos, et al., 2022). Entrenatzaileak betetzen duen eginkizuna kontuan hartu beharreko faktorea da kirol-arloko sexu-indarkeriako kasuetan, jokalarien portaera baldintzatu baitezake, bai eta haien garapen moralak ere. Izan ere, entrenamenduak lehiakortasunean eta lankidetzarik ezean oinarritzen direnean, balio-galdera sustatzen da(Evans, et al., 2016; Fisher, & Dzikus, 2017; Prat et al., 2020; Ríos, et al., 2022). Entrenatzailearen eta kirolariaren artean sarritan sortzen diren elkarreragin fisiko eta emozional handien ondorioz, ez da erreza izaten jakitea zein jokabide diren sexu-jazarpena kirol-arloan, ezta jazarpen horren definizioa egitea ere (Brackenridge, 1997).

Ikusi denez, kirola eremu maskulinoa izan ohi da, eta, sozialki sexu bakoitzari esleitutako estereotipoak onartzeaz gain, tradizio horrek justifikatu eta betikotu egin du emakumeen presentzia eskasa kirolaren maila guztietan (García & Olivero, 2002; Robles & Escobar, 2006). Nazioarteko testuinguruan, hauek dira kiroleko sexu-jazarpenari buruzko datuak: % 19 inguru dira Estatu Batuetan (Volkwein et al., 1997), % 45 Txekiar Errepublikan (Fasting & Knorre,

2005), % 20 Flandrian (Auweele et al., 2008), % 28 Norwegian (Fasting et al., 2000), eta % 21 Erresuma Batuan (Tomlinson & Yorganci, 1997). Child Abuse in Sport: European Statistics (CASES) azterlana 2019-2022 aldian egin da. Erresuma Batuko, Alemaniako, Belgikako, Errumaniako, Austriako eta Espainiako kirolariek parte hartu dute; guztira, 10.000 izan dira. Azterlanaren arabera, inkestatuen % 75ek, gutxi gorabehera, adierazi dute gutxienez pertsonen arteko indarkeria-esperientzia bat izan dutela kirolean 18 urte bete baino lehen. Esperientziarik ohikoena indarkeria psikologikoa izan zen ( % 65); ondoren, indarkeria fisikoa ( % 44); zabarkeria ( % 37); eta kontakturik gabeko sexu-indarkeria ( % 35). Kirolaren barruan, kontaktuko sexu-indarkeria izan zen esperientziarik ohikoena ( % 20). Datu horiek gorabehera, inkestatuen % 85ek kirol-esperientzia "ona" edo "oso ona" zela adierazi zuten (Hartill et al. 2021).

Azterketen arteko emaitzak alderatzeko orduan, arazoetako bat arestian azaldutako datuak lortzeko erabilitako metodologiak dira (Branckenridge, 1997; Bringer et al., 2002; Vertommen et al., 2022). Azterlan horietako batzuk elkarrizketa erdiegituratuak, narrazioak edo galdetegiak erabiltzean oinarritzen dira, besteak beste. Teknika horietako bakoitza helburu desberdinak lortzeko erabiltzen da. Elkarrizketa erdi-egituratuak eta narrazioek sakonago aztertzen dute nola ulertzen duten parte-hartzaileek kiroleko sexu-jazarpenari dagokionez sumatu eta bizi izan dutena (pertzepzioak eta esperientziak). Galdetegiak, ordea, ikuspegi orokorragoa ematen dute aztertu nahi den biztanleria osoari buruz. Ildo horretan, eta baliabide metodologikoak azterlanaren beharren zerbitzura jarrita, Euskal Autonomia Erkidegoko testuinguruan aplikatu daitezkeen galdetegi baliozko eta fidagarri bat erabiltzearen aldeko apustua egiten da. Horretarako, kirol-esparruko sexu-jazarpenari eta -abusuari buruz nazioartean eta Estatuan dauden galdetegiak aztertu dira.

**2. LITERATURA ZIENTIFIKOAN  
DAUDEN GALDETEGIAK  
BERRIKUSTEA**

## 2.1. METODOA

### *Bilaketa-estrategia*

Eskola-adinean izaten den jazarpenari buruzko galdetegiaren literaturan bilaketa sakona egin zen, kirolaren esparruan, 2021eko urritik 2022ko apirilera bitartean. Galdetegiak ingelesez eta gaztelaniaz argitaratu ziren. Bilaketa Pubmed, Dialnet, Eric, Scopus eta Psycinfo datu-baseetan egin zen. Aztergai den gaiarekin lotutako inongo artikulurik ez zela kanpoan geratuko bermatzeko, hitzen arabera bilaketaren barruan honako markatzaile boolear hauek erabili ziren: AND (y) eta OR (o), bi terminoak, edo, gutxienez, termino horietako bat, dituzten artikulua lortzeko. Eragiketen ordena zehazteko parentesiak erabili ziren. (Ikus 1. taula)

**1. taula** Bilaketa-terminoak, berrikuspenean sartuko diren artikulua identifikatzeko erabilitakoak.

---

Hona bilaketa bakoitzean erabilitako terminoak Dialneten datu-basean: Abuso sexual AND deporte; acoso sexual AND deporte; acoso sexual AND actividad física; abuso sexual AND actividad física; abuso sexual AND cuestionario de actividad física; acoso sexual AND cuestionario de actividad física; acoso sexual AND cuestionario de deporte; abuso sexual AND cuestionario de deporte; abuso sexual AND deportista; acoso sexual AND deportista; acoso sexual AND propiedades psicométricas; abuso sexual AND propiedades psicométricas

---

Pubmed, Eric, Scopus eta Psycinfo datu-baseetan, berriz, honako termino hauek baliatu ziren bilaketa egiteko: Sexual abuse AND sport; sexual harassment AND sport; sexual harassment AND physical activity; sexual abuse AND physical activity; sexual abuse AND physical activity questionnaire; sexual harassment AND physical activity questionnaire; sexual harassment AND sport quiz; sexual abuse AND sport quiz; sexual abuse and athlete; sexual harassment and athlete; sexual harassment and psychometric properties; sexual abuse AND psychometric properties.

**2. taula** Bilaketa aurreratuko terminoak

---

Hona Dialneteko datu-basean bilaketa bakoitzean erabilitako bilaketa-terminoak:(Abuso sexual AND deporte) AND estudiantes de deporte OR deportistas; (acoso sexual AND deporte)

---

---

AND estudiantes de deporte OR deportistas; (acoso sexual AND actividad física) AND estudiantes de deporte OR deportistas; (abuso sexual AND actividad física) AND estudiantes de deporte OR deportistas; (abuso sexual AND cuestionario de actividad física) AND estudiantes de deporte OR deportistas; (acoso sexual AND cuestionario de actividad física) AND estudiantes de deporte OR deportistas; (acoso sexual AND cuestionario de deporte) AND estudiantes de deporte OR deportistas; (abuso sexual AND cuestionario de deporte) AND estudiantes de deporte OR deportistas; abuso sexual AND deportista; acoso sexual AND deportista; (acoso sexual AND propiedades psicométricas) AND estudiantes de deporte OR deportistas; (abuso sexual AND propiedades psicométricas) AND estudiantes de deporte OR deportistas.

---

Pubmed, Eric, Scopus eta Psycinfo datu-baseetan, berriz, honako termino hauek baliatuta egin zen bilaketa: (Sexual abuse AND sport) AND sports students OR athletes; (sexual harassment AND sport) AND sports students OR athletes; (sexual harassment AND physical activity) AND sports students OR athletes; (sexual abuse AND physical activity) AND sports students OR athletes; (sexual abuse AND physical activity questionnaire) AND sports students OR athletes; (sexual harassment AND physical activity questionnaire) AND sports students OR athletes; (sexual harassment AND sports quiz) AND sports students OR athletes; (sexual abuse AND sports questionnaire) AND sports students OR athletes; sexual abuse AND athlete; sexual harassment AND athlete; (sexual harassment AND psychometric properties) AND sports students OR athletes; (sexual abuse AND psychometric properties) AND sports students OR athletes.

---

### ***Artikuluak sartzeko eta baztertzeko irizpideak***

Artikuluak sartu edo baztertu ziren 3. taulan ezarritako irizpideen arabera. Sartzeko irizpideak faktore hauek aintzat hartuta ezarri ziren: sexu-jazarpena jasan zuen biztanleria, jazarpena zer kirol-eremutan izan zen eta datuak biltzeko erabilitako tresnaren baliozkotasuna.



3. taula Berrikuspenean sartzen diren artikuluak baztertzeko eta sartzeko irizpideak.


Sartzeko irizpideak	Baztertzeko irizpideak
<p>Haur edo gazte zirenean, hau da, haurtzaroan (6-16 urte) edo unibertsitatean (18-33 urte), kirol-arloan sexu-indarkeria nozitu duten helduak.</p> <p>Eskolatik kanpo sexu-jazarpena nozitu izana.</p> <p>Galdetegiak adituen iritzia edota emaitzen baliozkotasuna du, bai eta test-retest neurketak ere.</p>	<p>Kirolaz kanpoko beste eremu batzuetan edo ezarritako adinetik kanpo (6-16 urte) izandako sexu-indarkeria.</p> <p>Eskola-ingurunean jazarpena nozitu izana.</p> <p>Jazarpen psikologikoa, fisikoa edo soziala nozitu izana, baina ez sexuala.</p> <p>Galdetegiak ez du baliozkotzerik, edo berrikuspen sistematikoa edo meta-analisikoa da.</p>

### ***Ikasketa hautatuak***

Bilaketan 14.889 erreferentzia jaso ziren guztira (Pubmed: 1745, Dialnet: 269, Eric: 9393, Scopus: 2802 eta Psycinfo: 680). Haietatik 2.076 artikulu baztertu ziren, bikoiztuta zeudelako. Horrenbestez, guztira, horiek kendu ondoren, 12.813 artikulu hartu ziren. Bigarren bilaketa aurreratua egin zen. Guztira, 103 artikulu lortu ziren, eta 12.710 kanpo geratu ziren. Haietatik 30 kendu egin ziren, bikoiztuta zeudelako, eta, guztira, 73 geratu ziren. Titulua eta laburpena irakurri ondoren, 26 artikulu hartu ziren, eta 47, berriz, azterketatik kanpo geratu ziren. Azkenik, 26 artikulu horietatik 8k baino ez zituzten betetzen berrikuspen honetan sartzeko irizpideak.

## 4. taula Hasierako bilaketa bibliografikoa.

	PUBME	DIALNET	ERI	SCOPU	PSYCINFO	GUZTIR
	D	.	C	S		A
<b>Sexu-abusua AND kirola</b>	322	23	336	408	194	1283
<b>Sexu-jazarpena AND kirola</b>	79	15	87	178	59	359
<b>Sexu-jazarpena AND jarduera fisikoa</b>	39	30	335	94	12	498
<b>Sexu-abusua AND jarduera fisikoa</b>	543	91	3585	1126	106	5345
<b>Sexu-abusua AND jarduera fisikoari buruzko galdetegia</b>	171	24	3585	287	7	4074
<b>Sexu-jazarpena AND jarduera fisikoari buruzko galdetegia</b>	9	13	335	21	1	379
<b>Sexu-jazarpena AND kirolari buruzko galdetegia</b>	24	5	87	22	0	138
<b>Sexu-abusua AND kirolari buruzko galdetegia</b>	64	2	336	59	2	461
<b>Sexu-abusua AND kirolaria</b>	222	20	336	248	98	826
<b>Sexu-jazarpena AND kirolaria</b>	78	13	87	115	38	331
<b>Sexu-jazarpena AND ezaugarri psikometrikoak</b>	12	5	18	20	18	73
<b>Sexu-abusua AND ezaugarri psikometrikoak</b>	182	28	266	224	183	883
<b>GUZTIRA</b>	1745	269	9393	2802	680	14.889



1. irudia. Azterlan honetako ikerketak hautatzeko prozedura.

### ***Kalitate metodologikoa***

Laginean sartutako azterlanen kalitate metodologikoa ebaluatzeko, Martínez-Lemos eta beste egileen *Qualitative Attributes and Measurement Properties of Physical Activity Questionnaires* izeneko egiaztapen-zerrenda erabili zen. Galdetegiak irizpide hauen bidez ebaluatzeko aukera ematen duen tresna: 1) Aztertutako biztanleria; 2) Azterlanaren diseinua; 3) Kudeaketa; 4) Fidagarritasuna/Neurketa-errorea; 5) Fiabilitatea-Test-retest; 6) Ageriko baliozkotasuna; 7) Edukiaren baliozkotasuna.

## 5. taula Ikerketarako balagarriak diren galdetegiak, ikerketarako sartzeko eta baztertze-irizpideak betetzen dituztenak

<b>BALIOZTATU:</b>		<b>OROKORRA</b>			<b>FIDAGARRITASUNA</b>		<b>BALIOZKOTASUNA</b>		<b>GUZTIZ KOARE KIKO PUNTUA</b>
<b>GALDETEGIA</b>	<b>Artikulua</b>	<b>Lagina</b>	<b>Diseinua</b>	<b>Kud.</b>	<b>Koef.</b>	<b>Test -re-test</b>	<b>Itxuraz</b>	<b>Edukia</b>	
<b>PARENT</b>	Interpersonal Violence in Belgian Sport Today: Young Athletes Report	+	+	+	-	-	+	+	5/7
<b>JOWETT</b>	The Coach-Athlete Relationship Questionnaire (CART-Q): development and initial validation	+	+	+	+	-	+	+	6/7
<b>VOLKWEIN</b>	Sexual Harassment in Sport: Perceptions and Experiences of American Female Student-athletes	+	+	+	+	-	+	+	6/7
<b>MARTÍN Y JUNCÀ</b>	El acoso sexual en el deporte: el caso de las estudiantes-deportistas del grado de Ciencias de la Actividad Física y del Deporte de Cataluña	+	+	+	-	-Edukia: baloratu beharreko konstruktua rekin lotutako kontu guztiak noraino sartu diren behar adina xehetasune kin, eduki gisa	+	+	5/7
<b>LOZANO</b>	The Spanish adaptation of the Interpersonal Sexual Objectification Scale (ISOS)	+	+	+	+	-	+	+	6/7

Lagina: biztanleria partehartzailea

Diseinua: tresna egiteko prozesua

Kud = Kudeaketa: nola baliatu den tresna

---

Koef = Fidagarritasun-koefizienteak: analisi estatistikoa

Test-retest/aurre-test: tresna baliozkotu izana, bi pase baliatuta

Itxuraz: galdetegiaren baliozkotasuna lehen begiratuan

Edukia: baloratu beharreko konstruktuekin lotutako kontu guztiak noraino sartu diren behar adina xehetasunekin, eduki gisa

## 2.2. EMAITZAK

Sexu-jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari buruz aurkitutako galdetegiaren barruan, tipologia desberdinak ikusten dira kirolaren barruko sexu-indarkeria mota hori aztertzean kontuan hartzen dituzten dimentsioak edo aldagaiak direla-eta, hala nola sexu-jazarpena.

Entrenatzailearen eta kirolarien arteko harremana arrisku-faktorea izan daiteke kirol-eremuan, kirolean aritzean izaten den bizikidetzarengatik; are gehiago, berekin ekar dezake autoritate- edo lagun-rola hartzea (Brackenridge & Kirby, 1997). Hala, lehenik eta behin, entrenatzailearen eta kirolarien arteko harremana kontuan hartzen duten artikuluak aurkitzen ditugu (6. taula).

6. taula Sexu-jazarpena neurtzeko tresnei buruzko artikuluak, entrenatzailearen eta kirolariaren arteko harremana jorratzen dutenak.

EGILEAK	JOWETT & NTOUMANIS (2004)	MARTÍN & JUNCÀ (2014)	VOLKWEIN ET AL. (1997)
<b>GALDETEGIA</b>	The Coach-Athlete Relationship Questionnaire (CART-Q)	Cuestionario de acoso sexual en deporte	Cuestionario de hostigamiento sexual en deporte
<b>LAGINA</b>	K=120 50 % kirolariak eta % 50 entrenatzaileak % 33 emakumezkoak eta % 65 gizonezkoak	N=214 ikasle-kirolari	N=210 emakumezko-ikasle 18-22 urte
<b>JAZARPEN-MOTA</b>	Sexu-jazarpena kirol-eremuan.	Sexu-jazarpena kirol-eremuan.	Sexu-jazarpena
<b>KUDEAKETA</b>	Autotxostena	Autotxostena	Autotxostena
<b>ITEM-AK</b>	23	48	54
<b>DIMENTSIOAK</b>	Sexuala	Sexuala	Sexuala, psikologikoa eta sexuala
<b>AZTERKETA-ALDAGIAK</b>	Sexu-jazarpeneren gaineko pertzepzioak kirol-eremuan: Hurbiltasuna, konpromisoa eta portaera edo ekintza osagarriak	Irakaskuntzarekin lotutako portaerak Irakaskuntzarekin zerikusirik ez duten baina horren mende dauden portaerak Jokabide sexistak Kontaktu fisikoak eta ahozko hurbilketak	Sexu-jazarpena Sexu-abusua
<b>NEURKETA-UNITATEA</b>	Likert eskala (1-7)	Likert (1-4)	Likert (1-4)
<b>BALIOZKOTASUNA</b>	Bai	Bai	Bai
<b>GALDETEGIAREN ESKURAGARRITASUNA</b>	Bai	Bai	Bai

Bigarrenik, pertsonen arteko sexu-indarkeria jorratzen duten galdetegiak erakusten dira, hau da, biolentzia-egoeretan erasotzaileak biktimaren taldekideak direnean. Izan ere, ez dira entrenatzaileak soilik indarkeriaz jokatzeko dutenak (Brackenridge, 2022); erasotzaileen artean taldekideak ere badaude (Joy et al., 2021). 7. taula.

Sumatutako sexu-jazarpena neurtzeko tresnei buruzko artikulua.

EGILEAK	KOZEE, TYLA, AUGUST-HORVARTH & DENCHIK (2007)	PARENT ET AL. (2019)
<b>GALDETEGIA</b>	The interpersonal Sexual Objectification Scale (ISOS)	Violence Toward Athletes Questionnaire (VTAQ) Hiru azpi-eskala ditu: atletaren bertsioa (VTAQ-A), entrenatzailearen bertsioa (VTAQ-C), gurasoen bertsioa (VTAQ-P).
<b>LAGINA</b>	N=711 emakume heldu	K=1055 14-17 urte
<b>JAZARPEN-MOTA</b>	Sexu-indarkeria	Pertsonen arteko indarkeria kirol-eremuan
<b>KUDEAKETA</b>	Autotxostena	Autotxostena
<b>ITEM-AK</b>	15	9 kirolariena, 37 entrenatzaileena, 25 gurasoena
<b>DIMENTSIOAK</b>	Psikologikoa Soziala Sexuala	Psikologikoa, fisikoa, sexuala eta soziala
<b>AZTERKETA-ALDAGAIK</b>	Biktimizazio fisikoa eta hitzekoa Manipulazio soziala	Arduragabekeriak Indarkeria fisikoa Sexu-indarkeria Indarkeria psikologikoa
<b>NEURKETA-UNITATEA</b>	Likert eskala (1-5)	Likert (1-4)
<b>BALIOZKOTASUNA</b>	Bai	Bai
<b>GALDETEGIAREN ESKURAGARRITASUNA</b>	Bai	Bai

### **3. KIROLEKO SEXU-JAZARPENARI BURUZKO GALDETEGIA HAUTATZEA**



### 3.1. ZERGATIK HAUTATU GALDETEGI HAU?

Argitaratutakoa berrikustean aurkitutako galdetegiak aztertu ondoren, eta kontuan hartuta sartze- eta bazterte-irizpideak, Martín & Juncà (2014) egileek erabiltzen duten galdetegi da irizpide horiek guztiak betetzen dituen eta, aldi berean, egin nahi dugun ikerketa gauzatzeko aukera ematen duena, Volkwein eta beste egile batzuen lana oinarritzat hartuta (1997). Tresna honek kirol-arloko sexu jazarpenari buruzko pertzepzioak eta esperientziak neurtzen ditu.

Arestian aipatutako galdetegien taulak arretaz aztertuz gero, ikusten da galdetegi hau dela kirolean izaten den sexu-jazarpenari sakon heltzen dion bakarra. Izan ere, kirolarien eta ikasleen pertzepzioak ez ezik, praktikan izandako esperientziak ere jasotzen ditu.

Hain da azterlan zabala, ezen kirol-eremuan izaten diren sexu-indarkeriako egoerak eragin ditzaketen eguneroko kontu garrantzitsuei buruzko informazioa jaso daitekeen, kirolean gerta daitezkeen sexu-indarkeria mota guztiak lantzen baititu (Fernández, 2000):

- a. Kirol-heziketarekin lotutako portaerak: hori biltzeak kirol-jardueran oro har onartzen diren eta, horrenbestez, normalizat jotzen diren eguneroko interakzioak eta portaerak aztertzeko aukera ematen du.
- b. Kirol-heziketarekin zerikusirik ez duten portaerak, baina haren mende daudenak: entrenatzailearen eta kirolariaren arteko interakzio-aukerak jasotzen dituzte, praktikatik kanpo eta kirol-esparrutik kanpo, baina lotuta egon daitezkeenak.
- c. Portaera sexistak: portaera horiek Brackenridge-k deskribatutako jazarpen-prozesu *continuum* aren parte dira (1997b).
- d. kontaktu fisikoak eta ahozko hurbilketak: kirol-erritu kulturalak gainditzen dituzten jarduerak markatzen dituzte, eta jasotzen diren ekintzak oso lotuta daude nahikoa esplizituak diren sexu-portaerekin.

## **4. KIROLEKO SEXU-JAZARPENARI BURUZKO GALDETEGIA**

## 4.1. AZTERGAIAK

Martín & Juncà-ren (2014) galdetegiaren bidez, azterketa pilotu bat egin zen, Hezkuntza eta Kirol Fakultateko ikasleek kiroleko sexu-jazarpenari buruz zer pertzepzio eta esperientzia duten jakin nahian.

## 4.2. PARTE-HARTZAILEAK

Guztira, Euskal Herriko Unibertsitateko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Graduoko 147 ikaslek parte hartu zuten ikerketa honetan. Haietatik, 52 emakumeak ziren (% 35,3;  $20,3 \pm 1,9$  urtekoak) eta 95, gizonak (% 64,7;  $21,2 \pm 2,3$  urtekoak). Komenigarritasun-lagin bat erabili zen, batetik, azterlan pilotu bat izan zelako, eta, bestetik, ikasle-kirolari horien sentsibilizazioaren garrantziagatik. Izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoko kirol-programen eta federazioen arduradun dira eta izaten jarraituko dute. Galdetegia ikasleei eman aurretik, guztiei jakinarazi zitzaizkien azterlanaren helburuak, ikerketaren prozedura eta izan zitzaketan arriskuak. Beren borondatez parte hartu zuten eta zegokien baimen informatua sinatu zuten. Ikerketak Helsinkiko Adierazpenean (2013) ezarritako jarraibideak bete zituen, baita kirol-ikerketako eta ekitaldiko zientzietako estandar etikoak ere (Harriss, et al., 2019). Halaber, Euskal Herriko Unibertsitateko Gizakiekin lotutako Ikerketetarako Etika Batzordeak onartu zuen ikerketa (M10/2022/110).

## 4.3. GALDETEGIA ERABILTZEKO PROTOKOLOA

### 4.3.1. PROZEDURA

Galdetegia pasa zitzaien, 2022ko apirilean, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Graduoko ikasleei, entrenatzailearen eta kirolariaren arteko harremanaren barruan izaten diren portaerak nola susmatzen eta bizi duten aztertu eta sexu-jazarpenak izan daitezkeen ala ez jakite aldera. Kontuan hartuta galdetegi hori autotxosten baten bidez kudeatzen dela, honako urrats hauek egin ziren: ikertzaileak parte-hartzaileengana jo zuten eta azaldu zieten ikerketak Etika Batzordearen oniritzia zuela eta haien parte-hartzea guztiz anonimoa eta borondatezkoa izango zela; orobat, galdetegia nola bete behar zuten azaldu zieten. Galdetegiak betetzeko behar zen denbora utzi zitzaien; eta bete ondoren, ikertzaileei eman zitzaizkien, ondoren azter zitzaten.

### 4.3.2. TRESNA

Kirol-eremuko sexu-jazarpenari buruzko galdetegiak kirolean izaten diren sexu-jazarpenen pertzepzioak eta esperientziak aztertzen ditu, eta aldeaz aurretik baliozkotu eta erabili da beste azterlan batzuetan (Volkwein et al., 1997; Martín & Juncà, 2014). Galdetegi hiru ataletan egituratu zen. Lehen atalean, entrenatzailearen portaerei buruzko 24 itemekin lotutako sexu-jazarpenaren pertzepzioak jaso ziren. Bigarren atalean, aldiz, inkestatutako gazteek 24 portaera berberen inguruan izandako esperientziak jaso ziren. Amaitzeko, hirugarren atala gehitu zen, parte-hartzaileen datu demografikoak eta kirol-datuak jasotzeko.

*Pertzepzioei* buruzko lehen atalean erabilitako neurketa-unitatea Likerten eskala izan zen (Volkwein et al., 1997, eta Martín eta Juncà, 2014, egileen ildoei jarraikiz) 0 = ez daukat argi portaera sexu-jazarpena den ala ez; 1 = portaera ez da inola ere sexu-jazarpena; 2 = beharbada, bai, bada; 3 = portaera ia segurua da sexu-jazarpena eta 4 = erabat ziur nago: portaera sexu-jazarpena da. *Esperientziei* buruzko bigarren atalean ere Likert eskala erabili zen: 0 = ez daukat argi, 1 = ez zait inoiz gertatu, 2 = bai, noizbait, 3 = bai, askotan eta 4 = niri ez, baina beste batzuei bai. Pertzepzioak eta esperientziak zenbait kategoriatan biltzen dira: kirolaren irakaskuntzarekin lotutako portaerak, kirolaren irakaskuntzarekin lotuta ez dauden baina testuinguruaren arabera horren mende dauden portaerak, portaera sexistak eta kontaktu fisikoak eta ahozko hurbilketak.

#### 4.4. AZTERKETA ESTADISTIKOA

Emaitzak maiztasun eta ehuneko gisa aurkezten dira, guztizkoan eta generoaren arabera. Gizarte Zientzietarako Pakete Estatistikoa baliatu zen (SPSS Inc., 26.0 bertsioa, Chicago, IL, AEB).

#### 4.5. EMAITZAK

##### ***Pertzepzioak eta esperientziak, guztira***

Galdetegiaren lehen atala kontuan hartuta, zeina pertzepzioetan oinarritzen baita, ikusten da gazte gehienek (% 91,8) adierazi zutela sexu-jazarpena dela, ziurtasun osoz, pribilegioen truke sexu harremanak proposatzea. Aldiz, baliorik txikiena (% 0,7) sorbalda ukitzearekin edo aisialdiari buruz galdetzearekin lotzen da. Bigarren zatia dagokionez, eta esperientziei helduz, ikusten da ehunekorik handienak (% 4,1) kirolariaren bizitza sexualari buruzko galderei dagozkiela, eta txikienak (% 1,4), berriz, kirolariarekiko interes sexuala erakusteari.

## 10. taula Pertzepzioak, guztira (maiztasunak eta portzentajeak)

	Inolaz ere ez	Izan daiteke	Bada	Ziurtasun osoz, bada.	Ez dut argi.
<b>Azalpenak eman bitartean sorbalda ukitzen dio.</b>	77 (% 52,70)	61 (% 41,80)	4 (% 2,7)	1 (% 0,7)	3 (% 2,1)
<b>Agurtzerakoan sorbalda ukitzen dio.</b>	98 (% 66,7)	41 (% 27,9)	4 (% 2,7)	1 (% 0,7)	3 (% 2,0)
<b>Musu ematen dio masailean</b>	9 (% 6,3)	60 (% 41,7)	45 (% 30,6)	26 (% 18,1)	4 (% 2,8)
<b>Irabaztean besarkatu egiten du</b>	93 (% 63,3)	44 (% 29,9)	3 (% 2,0)	3 (% 2,0)	4 (% 2,8)
<b>Azalpenak eman bitartean asko gerturatzen zaio</b>	26 (% 17,7)	99 (% 67,3)	16 (% 10,9)	3 (% 2,0)	3 (% 2,0)
<b>Kirolaria kafe bat hartzera gonbidatzen du</b>	46 (% 31,3)	79 (% 31,5)	79 (% 54,1)	15 (% 10,3)	4 (% 2,7)
<b>Kirolaria bazkaltzera gonbidatzen du</b>	27 (18,4)	91 (% 61,9)	21 (% 14,3)	3 (% 2,0)	5 (% 3,4)
<b>Kirolaria afaltzera gonbidatzen du</b>	22 (% 15,1)	86 (% 58,9)	29 (% 19,9)	5 (% 3,4)	4 (% 2,7)
<b>Kirolaria bere etxera gonbidatzen du</b>	10 (% 6,8)	65 (% 44,2)	49 (% 33,3)	20 (% 13,6)	3 (% 2,0)
<b>Kirolariari bere aisialdiaz galdetzen dio</b>	78 (% 53,1)	55 (% 37,4)	10 (% 6,8)	1 (% 0,7)	3 (% 2,0)
<b>Kirolariari asteburuari buruz galdetzen dio</b>	86 (% 58,5)	50 (% 34)	8 (% 5,4)	0 (% 0,0)	3 (% 2,0)
<b>Asteburuko bere plan pertsonalak azaltzen ditu</b>	69 (% 47,3)	60 (% 41,1)	9 (% 6,2)	0 (% 0,0)	8 (% 5,5)
<b>Aisialdian zer egitea gustatzen zaion azaltzen du</b>	89 (% 60,5)	46 (% 31,3)	8 (% 5,4)	2 (% 1,4)	2 (% 1,4)
<b>Kirolariaren itxura fisikoa goraipatzen du</b>	15 (% 10,3)	68 (% 46,3)	48 (% 32,9)	11 (% 7,5)	4 (% 2,7)
<b>Txikigarriekin hitz egiten dio kirolariari.</b>	21 (% 14,3)	81 (% 55,1)	26 (% 17,7)	10 (% 6,8)	9 (% 6,1)
<b>Emakumeak gutxiesteko oharrak egiten ditu</b>	8 (% 5,4)	16 (% 10,9)	48 (% 32,7)	70 (% 47,6)	5 (% 3,4)
<b>Kirolariari atximur egiten dio</b>	14 (% 9,6)	55 (% 37,7)	52 (% 35,6)	18 (% 12,3)	7 (% 4,8)
<b>Bizkarreko masajeak ematen dizkio</b>	17 (% 11,6)	59 (% 40,1)	43 (% 29,3)	22 (% 15)	6 (% 4,1)
<b>Kirolariari bere bizitza sexualari buruz galdetzen dio</b>	7 (% 4,8)	23 (% 15,8)	52 (% 35,6)	63 (% 43,2)	1 (% 0,7)
<b>Kirolarien bularrei edo ipurdiari begiratzen die</b>	7 (% 4,8)	11 (% 7,5)	36 (% 34,5)	93 (% 63,3)	0 (% 0,0)

<b>Kirolariarekiko sexu-interesa erakusten du</b>	6 (% 4,1)	8 (% 5,4)	22 (% 15,0)	111 (% 75,5)	0 (% 0,0)
<b>Ezpainetan musu ematen dio</b>	6 (% 4,1)	3 (% 2)	16 (% 10,9)	122 (% 83)	0 (% 0,0)
<b>Sexu-harremanak proposatzen ditu ezerezen truke</b>	6 (% 4,1)	6 (% 4,1)	16 (% 10,9)	119 (% 81)	0 (% 0,0)
<b>Pribilegioen truke sexu-harremanak proposatzen ditu</b>	6 (% 4,1)	1 (% 0,7)	5 (% 3,4)	135 (% 91,8)	0 (% 0,0)

**11. taula Esperientziak, guztira (maiztasunak eta ehunekoak)**

	Ez zait inoiz gertatu	Noizbait	Askotan.	Niri ez, beste batzuei bai	Ez dut argi.
<b>Azalpenak eman bitartean sorbalda ukitzen dio.</b>	14 (% 9,5)	78 (% 53,1)	53 (% 36,1)	2 (% 1,4)	0 (% 0,0)
<b>Agurtzerakoan sorbalda ukitzen dio.</b>	9 (% 6,1)	66 (% 44,9)	69 (% 46,9)	3 (% 2)	3 (% 2,0)
<b>Musu ematen dio masailean</b>	116 (% 78,9)	26 (% 17,7)	1 (% 0,7)	3 (% 2)	1 (% 0,7)
<b>Irabaztean besarkatu egiten du</b>	10 (% 6,8)	47 (% 32)	87 (% 59,2)	2 (% 1,4)	1 (% 0,7)
<b>Azalpenak eman bitartean asko gerturatzen zaio</b>	45 (% 30,6)	69 (% 46,9)	23 (% 15,6)	3 (% 2,0)	7 (% 4,8)
<b>Kirolaria kafe bat hartzera gonbidatzen du</b>	46 (% 31,3)	79 (% 31,5)	16 (% 10,9)	4 (% 2,7)	2 (% 1,4)
<b>Kirolaria bazkaltzera gonbidatzen du</b>	94 (% 63,9)	38 (% 26,9)	9 (% 6,1)	4 (% 2,7)	2 (% 1,4)
<b>Kirolaria afaltzera gonbidatzen du</b>	100 (% 68)	34 (% 23,1)	7 (% 4,8)	4 (% 2,7)	2 (% 1,4)
<b>Kirolaria bere etxera gonbidatzen du</b>	123 (% 87,3)	16 (% 10,9)	3 (% 2)	3 (% 2)	2 (% 1,4)
<b>Kirolariari bere aisialdiaz galdetzen dio</b>	13 (% 8,8)	73 (% 49,7)	53 (% 36,1)	3 (% 2)	5 (% 3,4)
<b>Kirolariari asteburuari buruz galdetzen dio</b>	12 (% 8,2)	70 (% 47,6)	57 (% 38,8)	2 (% 1,4)	6 (% 4,1)
<b>Asteburuko bere plan pertsonalak azaltzen ditu</b>	47 (% 32)	71 (% 48,3)	25 (% 17)	0 (% 0,0)	4 (% 2,7)
<b>Aisialdian zer egitea gustatzen zaion azaltzen du</b>	37 (% 25,2)	75 (% 51)	32 (% 21,8)	1 (% 0,7)	2 (% 1,4)
<b>Kirolariaren itxura fisikoa gorai patzen du</b>	78 (% 53,1)	49 (% 33,3)	6 (% 4,1)	6 (% 4,1)	8 (% 5,4)
<b>Txikigarriekin hitz egiten dio kirolariari.</b>	87 (% 59,2)	40 (% 27,4)	4 (% 2,7)	8 (% 5,5)	7 (% 4,8)
<b>Emakumeak gutxiesteko oharrak egiten ditu</b>	107 (% 72,8)	30 (% 20,4)	3 (% 2)	4 (% 2,7)	3 (% 2)
<b>Kirolariari atximur egiten dio</b>	119 (% 81)	17 (% 11,6)	1 (% 0,7)	6 (% 4,1)	4 (% 2,7)
<b>Bizkarreko masajeak ematen dizkio</b>	98 (% 66,7)	28 (% 25,9)	1 (% 0,7)	7 (% 4,8)	3 (% 2)
<b>Kirolariari bere bizitza sexualari buruz galdetzen dio</b>	115 (% 78,2)	21 (% 14,2)	4 (% 2,7)	6 (% 4,1)	1 (% 0,7)

<b>Kirolarien bularrei edo ipurdiari begiratzeko die</b>	113 (% 76,9)	14 (% 9,5)	5 (% 3,4)	7 (% 4,8)	8 (% 5,4)
<b>Kirolariarekiko sexu-interesa erakusten du</b>	133 (% 90,5)	4 (% 2,7)	2 (% 1,4)	6 (% 4,1)	2 (% 1,4)
<b>Ezpainetan musu ematen dio</b>	142 (% 96,6)	1 (% 0,7)	0 (% 0,0)	4 (% 2,7)	0 (% 0,0)
<b>Sexu-harremanak proposatzen ditu ezerezen truke</b>	141 (% 95,9)	1 (% 0,7)	0 (% 0,0)	5 (% 3,4)	0 (% 0,0)
<b>Pribilegioen truke sexu-harremanak proposatzen ditu</b>	143 (% 97,3)	0 (% 0,0)	0 (% 0,0)	4 (% 2,7)	0 (% 0,0)


### ***A. Pertzepzioerik zabalduenak***

Aztertutako portaeren pertzepzioei buruzko datuak % 9,2tik % 19ra bitartekoak dira. Kopururik handiena % 91,8koa da, eta pribilegioen truke sexu-harremanak proposatzeari dagokio. Ondoren, % 83koa, ezpainenetan musu emateari dagokio, eta gero, % 81koa, ezerezen truke sexu-harremanak proposatzeari. Ikusi 2. irudia

### ***B. Portaerarik ohikoenak***



Entrenatzaileek kirolariekin dituzten jokabide guztietatik, hauek dira gehiagotan izaten direnak ("bai, askotan" erantzuna kontuan hartuta): "irabaztean besarkatu egiten du"(% 59,2) eta "agurtzerakoan sorbalda ukitzen dio"(% 46,9). Horrela, azalpenekin lotutako portaeren edo kontaktu fisiko eta ahozko hurbilketen kategoriarekin bat datoz. Ikusi 2. irudia



2. irudia. Portaera eta esperientziarik ohikoenak, guztira.


### ***Pertzepzioak eta esperientziak, sexuaren arabera***

Sexuen arabera bereizita, gizonek emakumeek baino sexu-jazarpen zertxobait gutxiago sumatzen zuten item berberetan (ikus 3. irudia). Hala, bada, emakume guztiek (% 100) uste dute, ziurtasun osoz, pribilegioen truke sexu-harremanak proposatzea sexu-jazarpena dela. Berriz, gizonen % 87,4k du uste hori.

Aurreko atalean bezala, item berari dagokionez, gizonek eta emakumeek bizitako esperientzien ehunekoen arteko aldeak ikusten ditugu (ikus 4. irudia). Adibidez, kirolariarekiko sexu-interesa adierazteari dagokionez, emakumeen portzentajea % 82,7koa da, eta gizonena, berriz, % 71,6koa.



3. irudia. Pertzepziorik ohikoenak sexuaren arabera



#### 4. irudia. Esperientziarik ohikoenak sexuaren arabera

## **5. TRESNA**

## **6. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK**



- Bjørnseth I & Szabo A. Sexual Violence Against Children in Sports and Exercise: A Systematic Literature Review. *J Child Sex Abus.* 2018ko maiatza-ekaina;27(4):365-385. doi: 10.1080/10538712.2018.1477222.
- Brackenridge, C. (1997a). Sexual Harassment and Sexual Abuse in Sport. En G. Clarke & B. Humberstone (Eds.), *Researching Women and Sport*. Londres: Macmillan.
- Brackenridge, C. (1997b). “He Owned Me Basically...”: Women’s Experience of Sexual Abuse in Sport. *International Review for the Sociology of Sport*, 32(2), 115-130. doi:10.1177/10126909703200200.
- Bringer, J. D., Brackenridge, C. H., eta Johnston, L. H. (2002). Defining appropriateness in coach-athlete sexual relationships: The voice of coaches. *Journal of Sexual Aggression*, 8(2), 83–98. <https://doi.org/10.1080/13552600208413341>.
- Cerezo, F. (2009). Bullying: Análisis de la situación en las aulas Españolas TT - Analysing bullying in Spanish schools. *International Journal of Psychology & Psychological Therapy*, 9(3),383–394.
- Evans, B., Adler, A., MacDonald, D., & Côté, J. (2016). Bullying victimization and perpetration among adolescent sport teammates. *Pediatric Exercise Science*, 28(2), 296–303. <https://doi.org/10.1123/pes.2015-0088>.
- Fasting, K., Brackenridge, C. H., & Sundgot, J. (2000). *Sexual Harassment In and Outside Sport*. Oslo: Norwegian Olympic Committee.
- Fasting, K., & Knorre, N. (2005). Women in sport in the Czech Republic. The experience of female athletes. Oslo, Norway & Prague, Czech Republic: Norwegian School of Sport Sciences and Czech Olympic Committee.
- Fasting, K., Chroni, S., Hervik, S. E., & Knorre, N. (2010). Sexual harassment in sport toward females in three European countries. *International Review for the Sociology of Sport*, 46(1), 76-89. doi:10.1177/1012690210376295.
- Fisher, L. A., & Dzikus, L. (2017). Bullying in Sport and Performance Psychology. *Oxford Research Encyclopedia of Psychology*,1–23. <https://doi.org/10.1093/acrefore/9780190236557.013.169>.
- Garcia, A., & Diaz Olivero, P. (2021). Fútbol y género: desigualdades, sentidos y violencias en una cancha marcada. *Sociales Investiga*, (10). Honetan abiatuta berreskuratuta:<https://socialesinvestiga.unvm.edu.ar/ojs/index.php/socialesinvestiga/article/view/339>.
- Hartill, M., Rulofs, B., Lang, M., Vertommen, T., Allroggen, M., Cirera, E.,

- Diketmueller, R., Kampen, J., Kohl, A., Martin, M., Nanu, I., Neeten, M., Sage, D., Stativa, E. (2021). *CASES: Child abuse in sport: European Statistics – Project Report*. Ormskirk, UK: Edge Hill University.
- Harriss, D., Atkinson, G., Ethical Standards in Sport and Exercise Science Research. (2009). *International Journal of Sports Medicine*, 30(10): 701-702.
- Martín Horcajo, M., & Juncà Pujol, A. (2014). Sexual Harassment in Sport: the Case of Student-Athletes Reading for a Degree in Physical Activity and Sport Science in Catalonia. *Apunts. Educación Física y Deportes*, 115, 72-81. [https://doi.org/10.5672/apunts.2014-0983.es.\(2014/1\).115.07](https://doi.org/10.5672/apunts.2014-0983.es.(2014/1).115.07)
- Ohlert, J., Seidler, C., Rau, T., Rulofs, B., & Allroggen, M. (2018). Sexual violence in organized sport in Germany. *German Journal of Exercise and Sport Research*, 48(1), 59–68. <https://doi.org/10.1007/s12662-017-0485-9>
- Olweus, D. (1986). *The Olweus Bully/Victim Questionnaire*. Mimeo. Bergen, Norway: Research Centre for Health Promotion, University of Bergen.
- Prat, M., Flores-Aguilar, G., , Ríos, X., & Ventura, C. (2020). Bullying en el futbol infantil: La mirada de las familias y de los entrenadores. *Revista da Escola de Educação Física*. 26. 1-15. 10.22456/1982-8918.97195.
- Ríos, X., & Ventura, C. (2022). Bullying in Youth Sport: Knowledge and Prevention Strategies of Coaches. *Apunts Educación Física y Deportes*, 148, 62-70. [https://doi.org/10.5672/apunts.2014-0983.es.\(2022/2\).148.07](https://doi.org/10.5672/apunts.2014-0983.es.(2022/2).148.07)
- Robles, F., & Escobar, K. (2006). Mujeres en los órganos de gobierno de las organizaciones deportivas españolas. *Espainiako Batzorde Olinpikoa*
- Sáenz Olmedo, A., Arruabarrena, O. U., & Urteaga, A. I. (2022). Significados de la práctica del fútbol para una persona que sufre acoso escolar: estudio de caso. *Retos*, 47, 664–673. <https://doi.org/10.47197/retos.v47.94828>
- Sullivan, K., Cleary, M. & Sullivan, G. (2005). *Bullying en la enseñanza secundaria, el acoso escolar, cómo se presenta y cómo afrontarlo*. Espainia: Ceac Volkwein, K., Schnell, F., Sherwood, D., & Livezey, A. (1997) Se- xual harassment in sport: Perceptions and experiences of American female student-athletes. *International Review for the Sociology of Sport*, 32(3), 283-295. doi:10.1177/1012690297032003005